



“Eme haragia kafesnea baino gehiago gustatzen zait”

Alvarez Rabo | Saltzailea

Ostiral arratsalde arrunta
Bilboko ‘Corte Inglés’-en...

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Alvarez Rabok utzia

Aizu, zure aurpegia, tira, zure galtzerdia ezaguna egiten zait...

Galtzerdia jantzi behar izaten dut beti ezagut nazaten...

Bietako bat: edo Marcos komandante-ordea zara edo abizen hain... luzeko komikilari hura.

Marcos komandante-ordea ere Bartzelonako *Corte Inglés*eko saltzailea izan zen, ez da txantxa, Fernando Savaterrek esan zidan. Eta nire abizenak 24,3 zentimetroko luzera eta 5,1 zentimetroko diametroa du, gutxi gora-behera.

Barkatu baina, zuk ez al zenuen zeure buruaz beste egin?

Zoritarrez, artistikoki baino ez nuen neure buruaz beste egin, baina eman denbora pixka bat.

Suizidio artistikoa, noski... Orain gogoratzen ditut zure marrazkiak!

Nire marrazkiez gogoratzeak leku eskasean uzten zaitu. Beste gauza batzuk gogoratuko nituzke nik: lehen muxua, lehen amodioa, lehen kanpai jotzea...

Buztanarekin marrazten zenuela ere esaten zen. Nekagarria behar du.

Egiazki, behin bakarrik egin dut eta nekagarria baino ezerosoa izan zen.

A, baina jende inteligentearentzako komikiak ziren.

Zalantza dut pertsona inteligente eta kultuek komikiak irakurtzen denbora galtzen dutenik.

Publiko femeninoarentzat marrazten zenuen, batez ere.

Bada, bai, eme haragia kafesnea baino gehiago gustatzen zait.

Lastima haiei txorta ez gustatzea.

Gordin zaude oraindik: eme gazteek txorta gustuko dutenaren plantak egiten dituzte, moderno agertzeko.

Indiskreto izan nahi gabe, *Princi-pito* edo *Letizia*, bietako norekin pasa zenuen hobeto?

El prínci-pito komikiarekin. *Letizia y el sexo*-ekin, emazteak argitaratzea debekatu baitzidan, *coitus interruptus* bat izan nuen.

Horrelako uneak berriz bizitzeko ez duzu faltan buztana erabiltzea?

Adinarekin gauzak faltan baino soberan izan ohi dira.

Beste astakeriarik?

Ez zait batere gustatzen ikurrina, Gabonetako bandera bat dirudi. Nahiago dut mila aldiz espainiarra, bere koloreek bizitzeko gonbita egiten dute, Martiniak bezala. ■